**NAFARROA BAIKO KIDEEN KONPROMISO PUBLIKOA, 2011KO MAIATZEAN EGINGO DIREN HAUTESKUNDEEN AURREAN**

Aralar, Eusko Alkartasuna eta EAJ-PNV, Nafarroa Bairen parte diren alderdiok, bai eta behean sinatzen duten independenteek ere, argiki adierazten dute 2011-2015 Nafarroako legegintzaldirako aukeratuko diren udal eta parlamentuari begira Nafarroa Bai dela era esklusiboan egiten duten aldaketarako apustua eta, beraz, euretako bakoitzak beste batzuekin hartu izan dituen bestelako konpromisoek ez dutela Nafarroako eremuan eraginik, ezta Nafarroa Bairekin hartutako konpromisoen garapenean eragiteko bokaziorik ere.

Horrek guztiak inongo baliorik gabe uzten du, Nafarroari eta aipatutako denbora epeari dagokionez, Batasunarekin sinatutako akordioetan jasotakoa.

Ondorioz, adierazpen honen sinatzaileek bere egiten dute jokabide leiala izateko konpromisoa; alegia, sinatzaileok Nafarroa agertoki izango duten edo NaBairekin harturiko konpromisoak zalantzan jartzetzat edo interferentziatzat har litekeen adierazpen, eszenifikazio publiko edo Batasunarekiko hitzarmen berririk ez egiteko konpromisoa hartzen dute.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 27an.